

2025EKO IRAILAREN 25EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bosta

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

ETORRI GABEA: AITOR ALDASORO ITURBE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Garazi Urkiola interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-07-24ko aktaren onespena.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, inolako zuzenketarik aurkeztu ez delako.

2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- HABE ETA BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, AZKEN HAU ERAKUNDE LAGUNTZAILEA IZATEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN. 2025EUBO0009

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

2025eko irailaren 11ko EHAA n argitaratu zen, HABE zuzendariaren 2025eko irailaren 3ko EBAZPENA, zeinaren bidez arautzen dira 2025-2026 ikasturtean C1C1 komunika gaitasun maila helburu duten ikastaroak egiteko C1C1 helburu duten helburu-maila eta abiapuntu-maila jakin bat duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak eta Udalek hitzarmena sinatzeko eta hitzarmenera atxikitzeko aukera izatea.

Aldi berean 2025eko irailaren 11ko EHAA n argitaratu zen, HABE zuzendariaren 2025eko irailaren 3ko EBAZPENA, zeinaren bidez arautzen dira 2025-2026 ikasturtean A1 eta A2 maila ikasten duten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak eta Udalek hitzarmena sinatzeko eta hitzarmena atxikitzeko aukera izatea.

OINARRI JURIDIKOAK

- 38/2003 Legea Diru Laguntzak emateko
- Urriaren 1ekoa 40/215 Legea (sektore publikoaren araubidearena)

Kontuan izanda aurrekari nahiz oinarri juridikoak, Herritarrak batzordeak Udaltzatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Dirulaguntza horiek gauzatzeko hitzarmenak onartu eta sinatzea eta ikasleentzako dirulaguntzen kudeaketan erakunde laguntzaile izateko eskaria egitea.

- A1eko, A2ko eta ikasleei eta 16-18 urteko ikasleei C1eko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, 2025-2026 ikasturtean.”

Ezagutzera eman da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ematen duen dirulaguntza da. Aurreikusitako zenbatekoa ondorengo da:

- A1 mailako ikasleek gehienez 455 euro jasoko dituzte.
- A2 mailako ikasleek 750 euro jasoko dituzte gehienez, bi azpimailatan banatuta: 375 euro A1A1 azpimaila duten ikasleek, eta 375 euro A2A1 azpimaila duten ikasleek.
- C1C1 mailako ikasleek 750 euro jasoko dituzte gehienez.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- IGARTZAKO FUTBOL ZELAIKO TABERNAREN USTIAPENA: KONTRATISTAK KONTRATUARI UKO EGITEA. 2024KIBO0013

Ezagutzera eman da, Herritarrek batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- 2024-06-06an, Udalbatzak erabaki zuen Beasaingo Igartzako futbol zelaiko taberna kafetegiaren ustiapenaren lizitazioa egitea (espedientea: 2024KIBO00013), prozedura ireki arruntaren bidez, eta horretarako plegu administratibo eta teknikoak onartu zituen.

2.- Dagokion prozedura izapidetu ondoren, esleipena lizitaziora aurkeztu zen pertsona bakarraren alde egin zen eta kontratua, 750 €ko eta formalizatu ahal izateko errekeritutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, 2024-10-10ean sinatu zen, hiru urterako, eta bi luzapen egiteko aukera, bakoitza urtebetekoa.

3.- 2025-06-25ean kontratistak, udal erregistro elektronikoaren bidez, kontratuari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen, adieraziz hainbat lapurreta jasan dituela eta aseguruak ez dituela kasu guztietan bere gain hartu lokalaren segurtasun-baldintzak ez betetzeagatik eragindako kalteak. Horregatik guztiagatik, taberna hilabetez itxita egon behar izan duelako.

Hileroko kanona berrikusteko eskatu du, telebistarik eta berogailurik ere ezin izan duelako izan, eta intsonorizazioan egindako inbertsioa berreskuratu nahi duela ere aipatu du.

2025-07-15ean, kontratistak beste idazki bat aurkeztu zuen, aurrekoa errepikatuz eta elektrizitate-horniduraren gastua ere berrikusteko eskatuz, Udalak titulartasuna aldatzeko aukerarik eman ez zuenez, nahi zuen hornidura kontratatzeke aukerarik izan ez zuelako.

4.- Kontratuaren arduradunak eta obra eta zerbitzuetako buruak txostenak egin dituzte kontratistak kontratuari uko egiteko argudiatutakoari buruz.

5.- Horretaz gain, espedientean jasota daude:

- Diruzainak 2025-09-12an emandako ziurtagiria, kontratistak udalarekin dituen zorrei buruzkoa. Kontzeptuak eta zenbatekoak adierazten dira.
- Idazkariaren txostena, 2025-09-15ekoa.

OINARRI JURIDIKOAK

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: 110., 211. eta 213. artikulua.

- Estatu Kontseiluaren 1.450/2003 Irizpena, ekainaren 26koa.

- 8/2018 Txostena, apirilaren 11koa, Aragoiko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearena.

Aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, Herritarren Batzordeak honako akordio-proposamen hau aurkeztu dio Udalbatzari (organo eskuduna, lizitazioa onartu zuelako):

Lehenengoa.- Kontratistak kontratua formalizatzeko dirutan jarritako 750,00 €ko fidantza konfiskatzea.

Bigarrenen.- Kontuan hartzea kontratuaren arduradunak kontratistari hilabeteko kanona barkatzeko egindako proposamena, eta kontratistak erositako biniloen eta sonografoaren kostua ordaintzea (erosketa-fakturak atxikitzen dira).

Fidantzaren zenbatekoa (750,00 €) gehi aipatutako hiru kontzeptuena (2.875,9 € guztira) sortutako zorren zenbatekotik (6.407,22 €) kenduko lirateke.

Udalaren aldeko saldoa 3.531,32 eurokoa da.

Hirugarrena.- Kontratistari osoko bilkuraren erabakia helaraztea hamar egun balioduneko epea emanez egoki iritzitako guztia alegatzeko, eta Alkateari ahalmena ematea kontratistaren alegazioak behin betiko ebazteko eta kontratua suntsiarazteko, espedientea amaitutzat joz.

Ematen den ebazpenaren berri emango zaio Osoko Bilkurari, egiten den lehenengo bilkuran.

Laugarrena.- Kontratu berria esleitzeko, suntsiarazpen-espedientea amaitu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Falta botatu dugu batzorde aurretik kontratistari ezer ez esan izana. Iruditzen zaigu hobeto zaintzeko gaiak direla. Salaketa txiki honengatik abstenitu egingo gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Formalki erabaki hau plenoak hartu beharreko da, baina egia da horrek ez duela kentzen, kasu honetan, kontratistari proposamenaren berri ematea. Orain 10 eguneko epea izango du alegazioak egiteko. Berarekin behin baino gehiagotan egon gara, baina, bai, formalki egin behar den prozedurak ez du kentzen aurretiaz berarekin egon eta modu ofiziosoan berari helaraztea.”

Besterik gabe, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Beraz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ETA ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE BEASAINGO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN PLEGUAK ONARTZEA.
2025ZEBO0055

Ezagutzero eman da Lurralde batzordeko ondorengo proposamena, hain zuzen ere, aipatutako zerbitzua kontratatzeke lizitazioaren ezaugarriei buruzkoa:

“1.- Prozedura: irekia. Lizitazio elektronikoa.

2.- Izapidetzea: arrunta eta harmonizatua

3.- Lizitazio prezioa, urtekoa: 500.525,74 € + BEZ

4.- Egikaritze epea: 5 urte 2026ko otsailaren 18tik kontatzen hasita..

5.- Luzatzeko aukera. Ez

6.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:

Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzaileraren jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 778.511,61 € izango da gutxienez. Zenbateko hori 87.3.a artikulua 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.

7.- Kaudimen tekniko:

a) Azken hiru urteetan zehar egindako lan eta zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, kontratu honen xedea osatzen duten zerbitzu edo lanen antzekoak. Gutxienez 363.305,41 €-ko zenbatekora (kontratuaren urteko batez bestekoaren % 70) iritsi beharko du zenbatekoak urterik onenean, eta behar bezala azalduko dira zenbatekoak, datak eta lan edo zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua.

Zerbitzu bat kontratuaren xedea den izaera bereko edo antzekoa den zehazteko, ezaugarrien koadro honetako 2. atalean adierazitako CPV koderak jo beharko da.

8.- Adjudikazio irizpideak:

- Automatikoki baloratzen ez direnak: Memoria Teknikoa: 36,00 puntu.
 - o Zerbitzuaren proiektua (20)
 - o Kontratistak zerbitzuaren kalitatea baloratzeko erabiliko dituen baliabide/moduak (8)
 - o Pertsonalaren kudeaketa (8)
- Automatikoki baloratzen direnak: 64 puntu
 - o Eskaintza ekonomikoa, urtekoa (50)
 - o Zerbitzu bereziak eta kontratuaren aldaketak egiteko orduko prezioa (14)

9.- Aurkezteko epea, ordua eta lekua: Hogeita hamar egun naturalak, 23,55arte. Lizitazio iragarkia Europa Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik kontatzen hasita.

10.- Subrogatu beharreko pertsona. Ikus baldintza plegu administratiboaren 3. eranskina.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzaileraren profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

13.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:

Langileen ordezkapenak ondorengo langileen bidez egingo dira lehentasunez: laneratzeko zailtasunak dituzten langileak, tokiko emakume langabetuak edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden taldeetako pertsonak.

14.- Kontratuaren aldaketa: Bai. Bi hauek aurreikusi dira: Kontratuaren xedean eraikin berriak sartzeko eta maiztasun handiagoak eta zeregin berriak sartzeko.

15.- Lizitazioa bi fasetan gauzatuko da:

- 1. Fasea: judizio bidez baloratuko diren irizpideak (B artxibo elektronikoa)
Fase honetan lizitazio osoko %50eko puntuazioa lortu behar da, hurrengo fasera pasatzeko.

- 2. Fasea: Urteko eskaintza ekonomikoa eta orduko prezioak (zerbitzu bereziak eta kontratu aldaketak) ”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- "ANDRAMENDI KALEAN BAZTERBIDEA EGITEA ETA BIDEA ZABALTZEA ETA NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARAKO BILTEGIA ERAISTEA" IZENENKO PROIEKTUAREKIKO AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ETA DESJABETZEAK UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK OKUPATU BEHARRA ONARTZEA. 2025PROB0004

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 2025-05-29ko Tokiko Gobernu Batzordeak ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenengoa.- "Andramendi bidean bazterbidea egitea eta bidea zabaltzea eta nekazaritza eta abeltzaintzarako biltegia eraistea" izeneko Proiektua onartzea.

Bigarrena.- Proiektua onartzeak onura publikokotzat jotzea dakar, espedientearen interesdun izan daitezkeenak zehazteko, bai eta desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra ere.

Hirugarrena.- Proiektu horretako obrak egiteko okupatu behar diren titularren, ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakatua egitea, honekin batera doan Eranskinaren arabera.

Eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda, partzelen planoekin batera, udal-bulegoetan aztertu ahal izango da, erabakia GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.- Desjabetzearen onuraduna Beasaingo Udala izango dela aitortzea.

Bosgarren.- Jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea irekitzeko agintzea, erabaki hau iragarki-taulan, gardentasun-atarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Diario Vasco eta Berria egunkarietan argitaratuz (artikuluak 18. EFLrena, 17. EFArena, 83,2 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2025 Legearena eta 7e) gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearena).

II.- Hartutako erabakia, Diario Vasco, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berrian, 2025eko ekainaren 6, 9 eta 10 egunetan argitaratu zen, hurrenez huren. Udalaren web orrian ere argitaratu zen eta afektatutako titularrei jakinarazi zitzaien.

III.- Alegazioak aurkezteko epea, 2025-7-08an amaitzen zen.

2025-7-7ko datarekin (sarrerako erregistro zenbakia, 2025-6374), Francisco M^a Dorronsoro Arrieta jaunak Jose Ramón Dorronsoro Murgiondo jaunaren oinordeko gisa, alegazio-idatzia aurkeztu zuen aipatutako Proiektuari ezezkua emanez interes orokorrekoa ez delako eta jabetza pribatuan eragina duelako. Aldi berean eskatzen du, bide publikoari irteera ibilbide laburragotik ematea, kamioentzat irisbidea izanez eta inolako biltegirik bota gabe (hori dela eta Agirre Haundi et bidea eta Florencio Axperen argazkiak atxikitzen ditu).

IV.- 2025-09-08. Udalari aholkatzen dion arkitektoaren txosten teknikoa, alegazio-idatzian egoten diren eskaerei buruz.

V.- 2025-09-10. Idazkariaren txostena, aurkeztatutako alegazioei, jarraitu beharreko prozedura buruz eta erabakia hartzeko zein den organo eskuduna adierazteko

OINARRI JURIDIKOAK

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: udalerrien desjabetze-ahala (4. artikulua).
- Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legea (EFL). 9, 10 11, 17, 18 artikulua.
- Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua, 1957ko apirilaren 26koa (EFA). 16,1 y 17 artikulua.
- 37/2007 epaia, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiarena, 2007-02-7koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 147/09 epaia (Administrazioarekiko Auzien Sala), 2009-02-16koa.

Kontuan izanda aurrekari eta oinarri juridikoak, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik. Francisco M^a Dorronsoro Arrieta jaunak aurkeztutako alegazioak ebatzea, deuseztatuz, txosten juridiko eta teknikoaren arabera (Ikus I. Eranskina).

Bigarren. "Andramendi kalean bazterbidea egitea eta bidea zabaltzea eta nekazaritza eta abeltzaintzarako biltegia eraistea" izeneko proiektuaren xedeak erasandako titular eta ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea.

BEASAINGO UDALERRIA

Lurzatia: P1

Jabea: DORRONSORO MURGUIONDO JOSE RAMON

Helbidea: Loinatz auzoa 1, Andramendi Baserria, 20200 Beasain

Desjabetzapena: **365,80 m²**

P1.1 64.61 m² (3571 finka, 780, Tomoa, Beasaingo 56 liburua).

P1.2 160,18 m² (3567 finka, 773, Tomoa, Beasaingo 55 liburua eta finka...).

P1.3 141.01 m² (3571 finka, 780, Tomoa, Beasaingo 56 liburua).

Zortasuna: **0,00 m²**

Aldi baterako lur-hartzea: **395,19 m²** (P1.4) (3567 finka, 773, Tomoa, Beasaingo 55 liburua eta finka...).

Mugak:

Iparraldean: Finkaren gainerakoa

Hegoaldean: Finkaren gainerakoa

Ekialdean: Finkaren gainerakoa

Mendebaldean: MUGICA ECHEVERRIA MARIA eta GALLARDO ARRIBAS VICENTE

Katastroko izaera: Landalurra

Eref.: 15-130

Lurzatia: P2

Jabea: DORRONSORO MURGUIONDO JOSE RAMON

Helbidea: Loinatz auzoa 1, Andramendi Baserria, 20200 Beasain

Desjabetzapena: **79,16 m²** (3571 finka, 780, Tomoa, Beasaingo 56 liburua).

Zortasuna: **0,00 m²**

Aldi baterako lur-hartzea: **0,00 m²**

Mugak:

Iparraldean: Finkaren gainerakoa

Hegoaldean: Finkaren gainerakoa

Ekialdean: Finkaren gainerakoa

Mendebaldean: Finkaren gainerakoa

Katastroko izaera: Hirilurra

Eref.: 6466097

Lurzatia: P3

Jabea: MUGICA ECHEVERRIA MARIA ETA/Y GALLARDO ARRIBAS VICENTE

Helbidea: Foru kalea 38-1º, 20200 Beasain

Desjabetzapena: **6,74 m²** (P3.1)

Zortasuna: **0,00 m²**

Aldi baterako lur-hartzea: **61,93 m²** (P3.2)

Mugak:

Iparraldean: Finkaren gainerakoa

Hegoaldean: Finkaren gainerakoa

Ekialdean: DORRONSORO MURGIONDO JOSE RAMON

Mendebaldean: Finkaren gainerakoa

Katastroko izaera: Landalurra

Eref.: 15-126

Finka: 262, CRU: 20020000028167

Hirugarren. Erabakia argitaratzeko agindua ematea, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 21. artikulua (18. artikuluekin lotuta), adierazten duen moduan, hau da: Probintziako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko ohol-ediktu digitalean eta probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian batean iragarkiak txertatuz.

Laugarren. Erabakia prozeduran interesatuak diren guztiei jakinaraztea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekursoen aipamena eginez eta horretarako dauden epeak adieraziz.

Bosgarren. Ebazpen hau administrazio-bidean irmoa denean, desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen bidezko prezioa zehazteko izapideei ekingo zaie, tasazio indibidualaren prozeduraren bidez.

I. ERANSKINA

Erantzuna Francisco M^a Dorronsoro Arrieta jaunak aurkeztutako ondorengo alegazioei buruz:

- Proiektuari ezezkoa ematea interes orokorrekoa ez delako eta jabetza pribatuan eragina duelako.

- Eskatzen du, bide publikoari irteera

ibilbide laburragotik ematea, kamioentzat irisbidea izanez eta inolako biltegirik bota gabe

Idazkariak txostena eman du eta ondorengo adierazten du.

Interes orokorra

Proiektuaren memorian erabilera publikoa duen egungo bidean egin beharreko jardueren berri eman eta justifikatzen dira :

- Kurbako espazioa berrantolatu egiten da.
- Biraketa-erradioak zabaldu egiten dira.
- Lehendik dagoen bidearen zati bat metro erabilgarri batean zabalduko da, 100 metroko luzeran.
- Bazterbide bat sortzen da, zirkulatzen ari direnean bi ibilgailu gurutzatzea errazteko (gaur egun ezin da, eta biltegiak ibilgailuen biraketa eta anbulantzien sarbidea zailtzen ditu. Horregatik eraitsi egiten da).
- Andramendi eraikinaren egoera ez da oso ona, eta bidea proiektzio horizontalean inbaditzen duen estalkiaren teilatu-hegalak arrisku-egoerak sortzen ditu elementuren bat askatzen denean.
- Bizitegi-eraikinetara sartzeko eta bertatik irteteko zailtasunak daude

Azken finean, lehendik dagoen erabilera publikoko bide baten irisgarritasun-baldintzak hobetu nahi dira, ibilgailuen zirkulazioa oztoporik gabe emateko bermatuz.

Ukaezina da horrek interes orokorra duela, proiektatutako jarduketa gauzatzeak pertsonen eta ondasunen segurtasuna mantentzea lortzen baita.

Jabetza pribatuari eragitea

Hainbat jurisdikzio-erabaki daude Andramenditik abiarazi Agerre eta Agerrezabaletik pasa eta Beatxurretara iristen den bideari buruz, baina horietako bat ere ez da haren titulartasunari buruzkoa, bidearen erabilera publikoari buruzkoa baizik.

Azken bi epaiek honako hau adierazten dute:

1.- Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegia. 37/2007 Epaia, 2007-02-07koa (Beasaingo udalerriko landa-bideen inbentarioaren aurka aurkeztutako demanda):

“El conjunto de la prueba practicada, incluida el reconocimiento judicial, ha puesto de manifiesto que este camino en su primer tramo que se corresponde con los tramos de hormigón o grava, funciona actualmente como camino público..., mientras que el resto del trazado hasta su conexión con el camino de Otaño (EP6), una vez pasada la valla, salvo un primer tramo, es irreconocible y se desarrolla en terrenos cuya titularidad registral y posesión es privada.

Dada la naturaleza del Inventario aprobado, la inclusión del primer tramo del camino está plenamente justificada, sin perjuicio de lo que pudiera decidirse sobre la propiedad de los terrenos, cuestión dominical que deberá dilucidarse en la vía civil. Sin embargo el resto del camino presenta serias dudas tanto en cuanto a su calificación como público....

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia. 2009-02-16ko 147/09 Epaia (aurreko epaiaren aurka aurkeztutako apelazio-errekurtsoa ebatzi eta ezetsi egiten du):

SEGUNDO. “...la inclusión de los bienes inmuebles de dominio público en ese registro interno (inventario municipal), y no productor por sí mismo de presunciones posesorias ni dominicales, está vinculado, por ello a la racional y propia convicción que la Entidad local albergue de que el bien forma parte del patrimonio o del demanio municipal, y ha de ser por ello conservado o tutelado.”

TERCERO. En lo que se refiere al Camino de Aguerrezabal, la Sentencia del Juzgado nº 1 de Donostia-San Sebastian, solo asume justificación para su inventario en cuanto a su primer tramo, con base en la inspección practicada por el propio Juzgador...

Apelazio-errekurtsoa ezesteak irimo bihurtzen zuen Epaitegiaren epaia

Beraz, irisgarritasuna hobetu nahi den bidea erabilera publikokoa da eta horregatik dago Beasaingo bideen inbentarioan sartuta, nahiz eta bertan sartzeak ez duen esan nahi titulartasun publikoa duenik.

Hala ere, inbentarioan sartuta dagoenez, udal-jabariaren parte da, eta, horregatik, Udala behartuta dago jarduerak egitea pasabidea segurua izan dadin, baina baldintza horrek ez ditu partikularrak lotzen.

Aguirrezabala baserriko (262. finka, Tolosako Jabetza Erregistrokoa) lursail baten deskribapenak ere bidea publikoa dela dio. Erregistroko inskripzioan, c) lursaila, honela deskribatzen da:

El resto del terreno en una mano y que es el monte de la casería, con algunos pinos, argomas, etc. que se halla encima y al Norte del edificio, tiene una superficie de cincuenta y ocho mil novecientos sesenta y cinco metros veintiséis decímetros cuadrados y tiene como linderos: Norte y Oeste, pertenecidos de Don Juan Bautista Aguirre; Este, pertenecidos de la casería Zelata-berri; y Sur, con el camino público que sale del Paseo de los Fueros y va a la casería Andra-Iturri.

José Dorronsoro Murgiondo jaunak 1993-06-14an aurkeztutako idazkiaren arabera, Andra-Mendi baserria Andra-Iturri izenarekin ere ezagutzen da.

Alegazio-egilearen iradokizunak/eskaerak

Alegazio-egileak agerian utzi du sartzeko beste aukera bat dagoela, biltegirik bota gabe.

Hala ere, alternatiba bat egoteak ez du desjabetzea eragozten, baldin eta administrazioak uste badu proposatutako proiektua egokiena, eraginkorra edo lehentasunezkoena dela.

Xehetasun horiei buruz, arkitektoaren txostenak ondorengoa dio:

Beatxurreta, Agerre-Haundi, Agerrezabal eta Andramendi baserriak Foru Kalearekin lotzen dituen bidearen bilakaera historikoa aztertu ondoren, ikus daiteke, azken kale hori egin ondoren, 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera bide hori erabiltzen dela baserri horiek Beasaingo hirigunearekin lotzeko.

1954ko ortoargazkian dagoeneko ikusten da bide bat zegoela Agerre-Haundi, Agerrezabal eta Andramendi baserriak herrigunearekin lotzen zituena, Zelata eremua zeharkatuz.

Beasaingo bideen inbentarioaren arabera, bide hori bi zatitan banatuta dago:

1.- "Herri Bidea 7- Agerrezabal bidea": Agerrezabal baserrira eta Foru kalea lotzen ditu eta Andramendi baserriaren iparraldetik igarotzen da.

2.- "Gorputz bidea 4 – Agerre bidea": Beatxurreta baserrira eta Agerrezabal bidearekin lotzen du, Agerrezabal baserriaren parean.

Agerre-Haundi-Agerrezabal-Andramendi-Foru Kalearen arteko bide-tarteak "gerriko berdea/naturbidea" kalifikazioa du indarrean dagoen hirigintza-plangintzan.

Horrek guztiak egiaztatzen du baserri horiek herrigunearekin lotzeko historikoki erabili izan den bidea birmoldatu nahi dena deli, horretarako, beharrezkoa delarik titulartasun pribatuko lursailak okupatzea.

Alegazio-egileak iradokitzen du Agirre Haundiren parean dagoen bidea erabiltzea, Foru Kalearekin bat egiten duena 46 eta 48 zenbakien artean.

Titulartasun eta erabilera pribatuko bidea da, eta, historikoki, oinezkoentzako bidea izan zen. Lehenik, baserriaren lurretarako sarbide gisa, eta, ondoren, hiri-eremurako. 2013. urte inguruan, bide hori ibilgailuak igarotzeko egokitzeko lanak egin zituzten titularrek, baserria birgaitzeko lanetan erabiltzeko (% 30 inguruko malda du).

Lehendik dagoen bidearen malda handiegia da, baita ibilgailuak erabiltzeko ere, eta, beraz, trazadura nabarmen aldatu beharko litzateke. Hori dela eta, bide berri bat egin behar da, titulartasun pribatuko lurretan eta egikaritze-kostu oso handiarekin.

Bestetik, Indarrean dauden Arau Subsidiarioen 103. artikulua, "Lurzoru urbanizaezinean pistak irekitzea" izenekoak, honako hau adierazten du: "Debekatuta daude luzorur urbanizaezinean, baldin eta helburua behar bezala arrazoitzen ez bada edo xede hori landa ingurunea ustiatzeko jardueraren bati ez dagokionean". Bestalde, hasieran onetsitako HAPOn 124. artikulua "pistak zabaltzea" honako hau adierazten du: "Lurzoru urbanizaezinean pistak zabaltzea, bere helburuarekin eta landa ingurunean onartutako jardueraren bati xede hori dagokionean, behar bezala justifikatua izan beharko da"

Gaur egungo arazoa egungo bidea egokituz konpondu daitekeela kontuan hartuta, ez dago justifikatua luzorur urbanizaezinean bide berri bat zabaltzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

c.- BEASAINGO UDALA EUSKADIKO MUGIKORTASUN ETA LOGISTIKA KLUSTERREAN SARTU DA BAZKIDE GISA. 2025HIBO0133

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Beasaingo udala Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra elkartean bazkide gisa sartzea.

AURREKARIAK

I.- 2005. urtean sortu zenetik, Mugikortasun eta Logistika Klusterra, MLC ITS Euskadi, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da.

Pertsonen Mugikortasunaren, Merkantzien Logistikaren eta horrekin lotutako Industriaren sektorean lan egiten du, hau da, Garraioaren alorreko produktu, irtenbide, zerbitzu eta teknologia espezifikoak (ITS – Intelligent Transport Systems-) garatzen duen sektorean, horri guztiari esker Mugikortasuna egunez egun gero eta seguruagoa, efizienteagoa, jasangarriagoa eta teknologikoki aurreratuagoa izatea lortzeko.

II.- Klusterra Eusko Jaurlaritzak SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren bitartez bultzatutako Kluster Politikaren esparruan sektorearen erreferentziazko taldea da. Era berean, Espainiako Gobernuak Industria Ministerioaren mendeko Enpresa Elkarte Berritzaileen Sareko kide da, eta «Bronze Label» kategorian Klusterren Kudeaketaren Bikaintasunerako kalifikatuta dago ESCA-ren eskutik, European Secretariat for Cluster Analysis.

III.- Klusterraren misioa, mugikortasun eta logistika integratu, iraunkor eta konektatu baterako trantsizioa gidatzea eta bultzatzea, ingurune moderno eta berritzailea sustatuz. Lurralde-eraldaketaren eta -garapenaren bidez, Euskadi bizitzeko leku erakargarri bihurtu nahian, mugikortasun eraginkorrak eta logistika arduratsuak gizarte-ongizatean eta hazkunde ekonomiko iraunkorrean lagun dezaten.

IV.- Euskadiko mugikortasunaren eta logistikaren balio-kate osoaren lehiakortasuna bultzatzen duen eragilea, sektorearen berrikuntza eta eraldaketa jasangarria sustatuz. Bazkideen eta lurraldearen garapena eta indartzea bultzatuz, konponbide aurreratuen eta eragile anitzeko lankidetzak aktibo baten bidez. Joerak eta aukerak aurreratuz, ekosistema sektorial eraginkorragoa, seguruagoa eta arduratsua eraikitze lan eginez.

V.- Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra Eusko Jaurlaritzaren Kluster Politikaren partaide da, eta BCLM – Euskadiko Logistika eta Mugikortasun Federazioaren eragile eta bazkide fundatzailea.

Klusterra Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Bitartekaritza Eragilea da, eta Espainian Enpresa Elkarte Berritzaile gisa dago akreditatuta.

Gainera, Klusterra lankidetzan aritzen da eskualdeko eta nazioarteko beste elkarte eta erakunde batzuekin.

VI.- Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterreko bazkidetzat, urteroko 1.660,00 € kuota suposatzen du.

BAZKIDETZAREN ONURAK

- Hiri-azpiegiturak modernizatzeko eta garraio-sistema publiko eta pribatuak optimizatzeko irtenbide teknologiko berrietarako sarbidea.

- I+G proiektu berritzaileak garatzea, Beasainen irtenbide jasangarriagoak eta eraginkorragoak eskaintzeko, hala nola garraio partekatuko sistemak, ibilgailu autonomoak edo azpiegitura logistiko berriak.
- Karbono-aztarna murriztea, trafikoa kontrolatzeko eta garraio-flotak kudeatzeko sistema adimendunak ezartzeari esker.
- Aliantza estrategikoak ezartzea beste bazkide batzuekin, hala nola enpresa teknologikoekin, operadore logistikoekin eta sektoreko beste eragile garrantzitsu batzuekin, lankidetzara publiko pribatua sustatzeko.
- Mugikortasun eta logistika berrikuntzara bideratutako funts europarren, nazionalen eta pribatuen finantzaketa eta dirulaguntzak eskuratzea.
- Esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko guneetarako sarbidea.

OINARRI JURIDIKOAK

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dizkien berezko eskumenak, ingurumena babestearen eta garapen iraunkorraren eta mugikortasunaren esparruan (17,18 eta 18. artikulua).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea: 5. xedapen gehigarria.

PROPOSAMENA

Lurralde batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, azter dezan:

Lehenengoa: Beasaingo Udala "Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra" elkartean bazkide gisa sartzea onartzea. Eragina izango du, 2025-10-1etik aurrera.

Bigarrena: Urteko kuota 1.660,00 €-koa denez, 2025. urtean 415 €, BEZ gabe ordaindu beharko dira."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

d.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK: GARINGO SANEAMENDUA EGITEKO OBREI BURUZKO 8. eta 9. ZIURTAGIRIAK. 2024HIBO0054

Aho batez onartu dira, Garingo saneamendua egiteko obren 8. eta 9. obra-ziurtagiriak, 109.471,58 €koa (BEZ barne) eta 5.523,22 €koa (BEZ barne), hurrenez hurren.

e.- OBRA-ZIURTAGIRIAK: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEKO OBREI BURUZKO, 9. eta 10. IURTAGIRIAK. 2023PROB0014

Aho batez onartu dira, "San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrei buruzko" 9. eta 10. obra-ziurtagiriak, 176.458,78 €koa (BEZ barne) eta 123.541,81 €koa (BEZ barne), hurrenez hurren.

4.- MOZIOAK:

- PODEMOS-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SAIOA ALKAIZARI IGARTZA BEKA BERRIZ EMAN ETA CAF-EN BABESLETZARI UKO EGIN. 2025IDBO0019

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Puntu honetan Podemos-ek aurkeztutako mozioa dugu eta bi aurkako mozio, bata Beasaingo EH Bilduk aurkeztutakoa eta bestea, EAJ aurkeztutakoa PSE-EErekin batera. Hiruek irakurriko ditugu eta eztabaidatu ostea, bozketara pasatuko gara.

Alkatea andreak Aritz Corsitto Agirre jaunari hitza eman dio eta honek ondorengo mozioa irakurri du:

“ARRAZOIAK

Igartza Literatura Sorkuntzako Beka Beasainen eta euskal literaturaren esparru osoan dagoen ekimen kulturalik ospetsuenetakoa da. Bere helburu nagusia idazle gazteak laguntzea da, euren lanak garatzen, eta horrela euskarazko kultura indartzen laguntzea.

Aurten, Saioa Alkaiza idazleak beka baztertzea erabaki du, bere babesle nagusia CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresa dela jakinik. Enpresa honek giza eskubideen eremuan, tartean Amnistía Internacional delarik, salaketa publikoak jaso ditu, Palestinako lurralde okupatuetan burutu dituen azpiegitura proiektuetan nazioarteko legea urratu dutelako.

Era berean, Nazio Batuen Erakundeko Palestinako Lurralde Okupatuetan Giza Eskubideen egoerari buruzko txostengile bereziak nazioarteko eta tokiko epaileei eskatu die enpresa batzuek (tartean CAF) giza eskubideen urraketa larrietan eta gerra krimenen laguntzan parte hartzen ote duten aztertzeko.

Kultur ekimenetan parte hartzen duten pertsonen integritate etikoa errespetatu behar da. Udalak ematen duen izen eta babesa duen sari publiko batek ez du pertsonen kontzientzia askatasuna baldintzatu behar, ezta euren balioekin kontrajarriko diren laguntza ekonomikoak onartzera behartu.

Hori guztia kontuan hartuta, interes publiko eta larrialdi berezikoak dira honako neurriak hartzea:

- Kontzientzia-arrazoiengatik sariari uko egin dion egileari emandako errekonozimendua itzultzea.
- Aurrerantzean, Udalak finantzatutako edo kofinantzatutako bekak eta sari kulturalak giza eskubideen printzipioak errespetatzen dituzten modu batean kudeatzea, parte hartzen duten pertsonak kaltetuak izan ez daitezen.

ERABAKIAK

Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurak, bere eskumenak erabiliz, ERABAKI DU:

1. Saioa Alkaiza idazlearen zintotasuna eta koherentzia etikoa jendaurrean aitortzea, kontzientzia arrazoiengatik Igartza bekari uko egin baitio.
2. Igartza Bekaren babesletza-eredua berrikustea, hurrengo edizioetan gizarte-erantzukizunaren printzipioak errespetatzen direla ziurtatzeko eta giza eskubideen urraketetan inplikatzeari nazioarteko erakundeek salatutako enpresekin lankidetzan aritzea saihesteko.
3. Udal honek kulturaren, giza eskubideen eta kontzientzia-askatasunaren balioekin duen konpromisoa adieraztea, baita kultura-jarduerak babesteko esparru etikoa defendatzearekin duen konpromisoa ere.”

Mozioen irakurketekin segi baino lehen Alkate andreak Plenoko bilerara etorri diren herritar

batzuei zuzenduaz, bilera bideo bitartez grabatzen ari direla eta, galdetu die asmoa sareetan bideoa erabiltzea den.

Eztabaida sortu da Osoko Biluretako bileretara bertaratzen direnek bileren bideoak har ditzaketen, araututa ez dagoenean.

Aldez aurretik Alkateak galdetuta, Idazkariak esan du ez duelako inolako arazorik ikusten argazkiak ateratzeko zinegotziek kargu publikoak diren heinean. Jakinarazi du Osoko Bilkurak egiten dituen bileren grabaketa, udal funtzionamendu araudian araututa egoten dela eta udal batzuek audioen bitartez grabatzen dituztela eta beste batzuk aldiz, bideo bidez jasotzen dutela gertatutakoa.

Alkate andreak adierazi du Osoko Bilkurak publikoak direla baina herritarrek bilerak grabatzea berria dela, Beasainen orain arte sekula ez dela gertatu eta udalak arautu gabe duen zerbait dela. Ontzat ematen du taldearen erabilerako izatea, baina ez sare sozialetan erabiltzeko.

Jarraian Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak, Beasaingo EH Bilduk aurkeztutako mozioa irakurri du:

“MOZIOA – IGARTZA SARIA, CAF ETA EUSKAL KULTURAREN DEFENTSAZ

Beasaingo Udaleko EH Bilduren udal taldeak ondorengo mozioa aurkezten du, Saioa Alkaizak ukoa egin izanaren harira, azken asteetan Igartza Sariaren inguruan sortutako eztabaidari erantzunez:

1. IGARTZA SARIAREN BALIOA ETA EUSKAL KULTURARI EGITEN DION EKARPENA

Igartza Saria —2000. urtetik aurrera Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin, antolatzen duen literatura beka— berebiziko garrantzia du euskal kulturarentzat eta literaturarentzat. 35 urte arteko sortzaileei zuzenduta dagoenez, belaunaldi berriei euskaraz sortzeko eta literatura lanak garatzeko aukera ematen die, eta azken urteotan euskal literaturan erreferente bihurtu da.

EH Bildutik gure konpromiso sendoa berresten dugu Igartza Sariaren etorkizuna bermatzeko, euskarazko sorkuntza babesteko eta sustatzeko ezinbesteko tresna dela ulertuta.

2. GOGOETA ESKAERA CAF ENPRESAREN ZUZENDARITZARI Israelek Palestinan burutzen ari den genozidioaren testuinguruan, CAF enpresak Israelgo Estatuarekin dituen harreman komertzialek (Jerusalengo tranbia, besteak beste) eztabaida piztu dute gizartean eta nazioarteko komunitatean.

Gure ustez, enpresa batek bere erantzukizun soziala eta etikoa kontuan hartu behar ditu bere jardueretan, eta are gehiago, tokian tokiko komunitatearekin harreman zuzena duenean. Horregatik, CAF enpresaren zuzendaritzari dei egiten diogu gogoeta sakon bat egin dezan bere nazioarteko proiektuen inguruan, bakearen, giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspegitik.

3. ETORKIZUNERAKO BALDINTZAK: SARI BAT EZIN DA GIZA ESKUBIDEEN KONTRAKO JARDUERAKIN LOTU

Igartza Sariaren etorkizuna bermatzea eta sariari lotutako babes instituzional zein ekonomikoek sentsibiltate sozialarekin bat etortzea ezinbestekoa da. Horregatik, EH Bilduk honako hau proposatzen du:

CAF enpresak aurrerantzean —Igartza Sariaren hurrengo edizioetarako— bere nazioarteko proiektuek giza eskubideekin bat egiten dutela bermatzen ez badu, Beasaingo Udalak babesle

moduan beste alternatibak aztertzea eta babes horren baldintzak berrikustea. Beharrezkoa da kultura, sorkuntza eta giza eskubideen arteko koherentzia bermatzea.

ONDORIOZ, BEASAINGO UDALARI HONAKO ERABAKIAK HARTZEA ESKATZEN DIOGU MOZIO HONEN BIDEZ:

- Igartza Sariaren balioa eta euskal kulturaren egiten duen ekarpena publikoki aitortu eta babestea.
- Udalak konpromisoa hartzea bekaren etorkizuna bermatzeko. Horretarako, Igartza Sariaren babesleen baldintzak berrikustea eta giza eskubideen ikuspegitik koherentzia bilatzea.
- Nazio Batuen Erakundeak, nazioarteko hainbat eragilek eta enpresako langile batzordeek eskatzen duten moduan, CAF enpresari Israelekin dituen harreman komertzialak eteteko eskaera egitea.”

EAJ-PNV eta PSE-EEk aurkeztutako mozioa:

Alkate andreak Igartza literatura sorkuntza bekari buruzko mozioa irakurri du:

“Zioen azalpena

Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, 1994an sortu zuen Igartza Literatura Sorkuntzako Beka, euskal literatura sustatzeko eta idazle gazteen lana babesteko. Gure herriarentzat ez da dirulaguntza arrunt bat, baizik eta urteetan zehar euskal kulturaren aldeko apustu sendoa izan den sari kuttuna.

2024an, Udalak, CAFek eta Elkar argitaletxearen artean sinatutako hitzarmenari esker, sariaren zenbatekoa 10.000 eurotara igo zen, eta horrekin batera 3.000 euroko akzesit sari bat ere aurreikusten zen. Urte luze hauetan, Igartza bekak euskal literaturan erreferente izan diren idazleak bultzatu ditu, eta gure udalerria kultura sorkuntzaren erdigune bihurtu.

Azken edizioan, sarituak saria jaso ondoren bekari uko egitea erabaki zuen, CAF enpresaren nazioarteko jarduerak medio. Egoera horrek eztabaida sortu du, eta ezin dugu alde batera utzi Gazan gertatzen ari den sarraskia eta Israelgo gobernuak Palestinako herriaren aurka daraman genozidioa, gure udal taldeak irmoki salatzen dituen. Gure ustez, horrelako egoera larrien aurrean, beharrezkoa da giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbidearen aldeko hitza garbi eta tinko adieraztea.

Hala ere, argi utzi nahi dugu salaketa horrek ez duela inolaz ere Igartza Literatura Bekaren kontrako jarrerarik justifikatzen. Bekaren helburua euskal kultura eta idazle gazteen lana sustatzea da, eta horrek bere horretan jarraitu behar du. Gertaera politiko eta humanitario larriek ezin dute kolokan jarri urteetan euskal literaturari ekarpen bikaina egin dion tresna hau. Gainera, euskara sustatzeko erakunde eta publikoen arteko kolaborazioaren adibide da, sariari balio erantsia ematen dion ezaugarria. Izan ere, ezinbestekotzat jotzen dugu esparru publikotik haratago, enpresa beasaindarrak ere euskal kulturaren defentsaren parte aktibo bilakatzea.

Guzti honen isla da 2025eko urtarilaren 30ean Beasaingo udalbatzaren aho bateko erabakia, 2025 urteko Igartza Literatur sorkuntzarako oinarriak zinegotzi guztien aldeko bozkarekin onartu zituena. Zoriturrez, ordurako martxan zegoen Israelek Palestinar herriaren aurka daraman genozidioa.

Erabaki proposamena

1. Beasaingo Udalak irmoki salatzen du Israelen gobernuak Gazan egiten ari den genozidioa, eta giza eskubideen urraketa larri horien aurrean nazioarteko komunitatearen erantzukizuna aldarrikatzen du.

2. Beasaingo Udalak berretsi egiten du Igartza Literatura Sorkuntzako Bekaren aldeko babes, sortu zenetik izan duen espiritua eta helburua indartuz: euskal literaturaren garapena eta idazle gazteen sorkuntza lana sustatzea.

3. Beasaingo Udalak lanean jarraituko du Igartza Literatur Saria bertan-behera geratu ez dadin.

4. Beasaingo Udalak bere esker ona adierazten die urte hauetan guztietan bekan parte hartu duten erakundeei eta idazleei, eta herritarrak gonbidatzen ditu sariaren balioa kulturaren ikuspegitik ulertzera.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Gaurkoa egoera berezia da. Ni behintzat ez nengoen ohituta hiru mozio ezberdin eztabaidatu beharra izatea. Lehenengo aurkako mozioari erantzunez esan, EH Bilduk aurkeztutako mozioa ez dela gurearekiko hain ezberdina. Agian gauzak beste modu batetara egin bagenitu, zerbait bateratua aurkezteko aukera izango genuen. Nire ustetan inork ez du nahi Igartza saria arriskuan jarri, gure mozioarekin ez dugu hori zalantzan jartzen eta etorkizun oparoa izatea nahi dugu.

Bigarren aurkako mozioaren helburuak gure mozioa guztiz aldatzea dakar. Izandako arazoa ezkutatu edo gainetik kentzen da. Denok dakigu zergatik Igartza saria bertan behera geratu den. Esango nuke babesle baten kolaboraziogatik dela. Babesle horrek bere babesletzari uko egingo balio irabazleak ez zuen arazorik izango sariarekin aurrera jarraitzeko eta ezta Elkar-ek ere. Harrituta geratu naiz, aurkako mozio honen arrazoiarekin.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros no presentamos ninguna contramoción porque lo que nos parece importante, ya lo dije en la Junta de Portavoces, es que el Ayuntamiento tuviera un relato en común y el acuerdo unánime de preservar y proteger el premio Igartza, teniendo en cuenta en todo momento la defensa de los derechos humanos. Las mociones que han presentado Podemos y EH Bildu, no están distanciadas de lo que nosotros pensamos, pero decidimos adherirnos a la moción de EAJ, en aras a llegar a un acuerdo por la situación que se ha dado. El entrar en otro tipo de polémicas nos puede llevar a distanciarnos del objetivo que nos afecta directamente.”

Hasier Agirre Elokoberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Denontzat kaotiko xamarra izan da mozio honen kudeaketa. Podemos-ek aurkeztutako mozioarekin antzekotasunak izan ditzakegu, baina horrelako gai baten aurrean zerbait bateratu adostu behar genuen eta ez bakoitza bere aldetik joan. Aurretik beste lanketa bat egitea eskatzen du horrelako gaiak Etengabe saiatu gara horretan baina ez da posible izan. Denboraz oso justu ibili gara baina hala ere pentsatzen dut ez zela posible izango. Podemos-i esan mozioaren hainbat eskaera aldeztu aurretik kontrastatzea ez zela gaizki egongo. Sariaren irabazleak bere duintasun guztiarekin zer pentsa jarri du mahai gainean eta ez dakigu diru hori jasotzeko prest egongo litzatekeen. Berak bere protesta egin du eta ekintza horrek hau guztia piztu du. EAJ eta PSE-EE mozioarekin bat egiten dugu Igartza sariak aurrera jarraitzearekin eta horretarako gure eskua luzatzen dugu eta hurrena oinarriak onartzeko bat egiten dugu. Orain arte egindako lana balioan jartzen dugu baina egoera honetara zerbaitek ekarri gaitu. Testu horretan, hori, nolabait ere alde batera uzten da. Denoi tokatzen zaigu bizi dugun egun hauetan, bakoitzak bere ildotik, pauso batzuk aurrera ematea, adibidez, Donostiako bozeramaile batzordeak egin duen bezala egitea. Testu honek ezkututzen du herrian dugun enpresaren ardura. Gai hori ezin dugu saihestu eta gero bakoitzak izango du bere pentsaera eta noraino estutu behar den ala ez, CAF.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Lehentasuna izango balitz Igartza literatur bekaren jarraipena eta ikusita Saioa Alkaizak saria jaso eta handik egun batzuetara uko egin izana, honek guztiak beste lanketa bat eskatuko luke eta ez medioetara joan eta mozioaren aurkezpenak egin. Horretarako, udal honetan, baliabideak ematen dira udal taldeen artean eta benetan aipatu den bezala lehentasuna hori balitz beste euskarri batzuk erabiltzea aholkatuko nizuke beste batetarako. Zergati utzi du, saria hartu ondoren?. Berarekin egon beharko genuke argi eta garbi jakiteko zein izan den uko egitearen arrazoia, kontzientzia arazoak medio. Zilegi da erabat, zeren eta Israel burutzen ari den genozidioaren aurrean, protestatzeko modu bat izan da, zilegi dena eta errespetatzen duguna. Orain arte laguntzaile izan garen hiru erpinak (Udala, Elkar eta CAF), interpelatu egin gaitu. CAF atera da jokaldi honetatik eta ikusiko dugu etorkizuna zein den. Nik ere eskua luzatzen den Igartza literatur beka honekin aurrera jarraitzeko. Esan da herrian enpresak ardura duela (herriko eta Euskadiko enpresa nagusia da), 3.000 langile zuzen ditu eta denok dakigu hemen inguruan bakarrik zenbat enpresa eta pertsonak lan egiten duten zeharka. Erantzukizun soziala eta etikoa aipatzen dira, baina baita ere kontuan izan beharko genuke ekonomiarekiko eta langileekiko eta herritarren ongizatea bermatzeko duen helburua. Zuen testuan aipatzen dituzue amnistia internazionalak salaketa publikoa egin duela, ONUri txosten bat eskatu zaiola aztertzeko proiektu horrek giza eskubideak urratzen dituen. Hori alde batetik eta bestetik, CAFek egindako agerraldian esan duena, hau da, giza eskubide zibilak eta zuzenbide internazionala betetzen dituela. Horrekin esan nahi dudana da, gu baino horretarako eskumena duen erakunde batek esan beharko duela proiektu honek benetan giza-eskubideak urratzen dituen edo ez. Bitarte horretan hemen inguruan badaukagu zer esana, langile asko zaudete inguruan ekonomian eskaintzen duen balio erantsia eta horrelako kontratu bat eteteak zer suposatuz dezakeen (hori CAFek bakarrik jakingu du, gu ez gara haratago joango), baina benetan eskatuko nukeena da Igartza literatur bekak jarraipena izateko indarrak jartzea eta ez dezagun epaitu, epairik gabe. Egia da saiakera egin dela eta pena da horrelako gai batean adostasunera iritsi ez izana. Ez dakit denbora kontua izan den edo bakoitzak aldeaz aurretik bere jarrerak erabakita izatea. Gure ustez adostasunera iristeko gaia da”.

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Guk mozio hau duela hamabi egun aurkeztu genuen. Denbora egon da. Aurkako mozioak, duela 48 eta 24 ordu iritsi dira. Hain gai larria eta sentsiblea izanik, ez dakit zergatik hamabi egunetan talde politiko ezberdinek zergatik ez duten ezer esan gertatu denaren inguruan eta Osoko Bilkurara arte itxaron den. Beasaingo herrian zerbait larria gertatu den beste momentu batzuetan, udala azkar mugitu da adierazpen publikoa egiteko. CAFek ez du esan eskubideak errespetatzen dituenik. Esan du: “No se ha identificado vulneración de derechos”. Ezberdina da. Oraindik ikertzen ari dira. Elkar-ek bere adierazpena egin arte, Igartza literatur bekaren etorkizuna ez zegoen zalantzan, baina Elkar-ek emandako pausorekin, bi egunetan eszenarioa pixka bat aldatu egin da. Horregatik mozioa aurkeztu genuenetik aldatu egin da. Nik ez dut ulertzen Igartza sariari uko egitea bekaren kontrako jarrera denik. Nik ulertzen du saria babesten duen enpresaren aurkako jarrera dela eta badirudi saria irabazi duena kulpabilizatu nahi dela. Azkeneko hilabetetan iritziak asko aldatu dira. 2025eko urtarilean denok aho batez onartu genituen oinarriak, baina orain gauzak ez dira horrela. CAFek ikusiko du Euskal Herriko Unibertsitateak berarekin zuen kolaborazioa moztu duela, Elhuyarekin, Lehendakari jaunak berak ere gogoeta bat egiteko gonbitea luzatu zuen. Arratsalde honetan atera duen komunikazioa, ea-ea obligazioz atera duela ematen du. Noski herriarentzat CAF-ek garrantzi handia duela, baina horrek ez du kentzen gogoeta etiko bat. Posible izango zen Belgicako kontratua ere aurrera ez ateratzea, dena arazo berdinagatik. Esango nuke gure ikuspuntua ezberdina dela.”

Hasier Agirre Elokoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Hasieratik esan dut gauzak ez ditugula ondo egin. Aritz-ek esan du orain dela 12 egun aurkeztu zuela mozioa, baina ez zuen

elkarlanera gonbidatzen eta mozio horretan esaten diren gauzak aurre-lan bat eskatzen zuten. Saioa Alkaizarekin eta Elkar-ekin egotea eskatzen zuten. Denok ditugu gure lanak eta egunak pasatzen dira. Hala ere onartzen dut, gauzak lehenago eta hobeto egitea ba zeudela. Saioak zergatik utzi duen garbi dago esan egin duelako. Elkar-ek ere esan egin du, alegia, egun dauden egoeratan ez daude baldintzak beka hau aurrera eramateko. Kontratuaren etete hitza oso potoloa da, baina 2018. urtean CAFeko langileak CAF-i eskatu zioten kontratu hori ez hartzeko. Urtero eskatu zaio kontratua eteteko. Lehen Jerusalem zen, baina orain dela aldatu da eta orain Israel-Palestina da. Baina berriro diot, guk eskua luzatzen dugu euskararen alde, literaturaren alde eta sortzailearen alde.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aintzakotzat hartzen dugu eskua luzatzen hori.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, lehenik Beasaingo EH Bilduk aurkeztutako aurkako mozioa bozkatu da:

Aldeko botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 9 (EAJ-PNV, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Aldeko botoen kopurua aurkakoena baina txikiagoa denez, ez da mozioa onartu.

Segidan, EAJ-PSE-EEren aurkako mozioa bozkatu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Aldeko botoen kopurua aurkakoena baina handiagoa denez, mozioa gehiengo osoarekin onartu egin da.

Horren ondorioz, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE udal taldeak aurkeztutako mozioa ez da onartu.

- PODEMOS-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GARRAIO PUBLIKOA. 2025IDBO0020

Alkatea andreak Aritz Corsitto Agirre zinegotziari hitza eman eta honek mozioa irakurri du:

“AZALPENA

Beasaingo Ahal Dugu-k kezka handia adierazten du Brinkola-Irun lineako udalerrri guztietako aldirietako garraio-zerbitzuaren funtzionamendu eskasaren aurrean; bereziki, garraio publiko alternatiborik ez duten herrietan (Goierriko eta Urola-Garaiko udalerrietan batik bat). Beasain erreferentziatzat hartuta, Donostiarako tren-zerbitzuaren maiztasuna nabarmen murriztu da (lehen 30 minututik behin, orain orduero), eta ibilbidea 65 minututik gora luzatu da, baldintza bidegabeekin: gainkargatutako trenak, eserlekurik gabekoak, zerbitzu eteteak gertatuz gero azalpen gabezia... Horrek guztiak nabarmen zailtzen du ikasleen eta langileen mugikortasuna.

Gure ikuspuntutik, Eusko Jaurlaritzak eta Mugikortasun Iraunkorreko Sailak AHTren obra

amaigabeei eman dieten lehentasunaren ondorioa da hori, egunero milaka pertsonak erabiltzen duten garraio publikoaren funtzionamendu egokia lehenetsi beharrean.

Eskertzekoa da Zumarraga, Beasain eta Ordiziako udalek egoera hori arintzeko egin duten ahalegina, autobus zerbitzu bat sortuz (GO07). Autobusa Ibaetako campuseko ikasleentzat da batez ere, baina gaur egun herritar askok erabiltzen dute Donostiara joateko. Hala ere, neurri hori ez da nahikoa: plaza-falta, maiz saturazioak eta aurreikuspen faltari buruzko kritikak. Nahikoa da edozein goizetan Beasain eta Ordiziako geltokietara hurbiltzea hori egiaztatzeko.

Zailtasun horien aurrean, pertsona askok ibilgailu pribatuak erabiltzea beste aukerarik ez dute. Horrek areagotu egiten ditu ingurumen-inpaktua, N-I errepideko trafikoaren dentsitatea (eta ondorioz, auto-ilarak) eta erabiltzaileen atzerapenak.

AHTren obren aurreko aldirietako zerbitzua, hobetzeko puntuak bazituen ere, herritarren beharretara eta erabileretara hobeto egokitzen zen.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

MOZIOA

1.- Beasaingo Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Sailari aldiriko zerbitzua berehala doan emateko eskatzea, zerbitzua aurreko maiztasunera itzultzen ez den bitartean (≤ 30 minutu) eta puntako orduetan sartzeko baldintza duinak bermatzen ez diren bitartean.

2. Lurraldebusek dagoeneko GO07 linearen zerbitzua indartu badu ere, jarraipena egiteko udal unitate tekniko bat sortzea eta martxan jartzea eskatzen dugu (Bailarako beste udal batzuekin lankidetzan) garraioaren saturazioa, gorabeherak eta benetako eskaria monitorizatzeko. Betiere Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Iraunkorreko Sailari eskatu behar zaiona aldiriko trenen zerbitzua berriro martxan jartzea dela ulerturik, gutxienez aurreko baldintzetan bezala.

3. Mugikortasun iraunkorreko tokiko eta eskualdeko plan bat idazten hastea, erakundeen arteko lankidetzarekin, Beasain-Donostia ibilbidean garraio publikoa ibilgailu pribatuaren erabileraren aurretik lehenesteko.”

Jarraian, Alkate andreak Eva Alvarez Atanes Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldearen ordezkariari hitza eman eta honek ondorengo aurkako mozioa irakurri du:

“EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El correcto funcionamiento del transporte público es una necesidad fundamental para garantizar la movilidad sostenible de estudiantes, personas trabajadoras y del conjunto de la ciudadanía. La movilidad sostenible no es solo un servicio, sino un derecho que permite el acceso a otros derechos básicos como la educación, el empleo, la sanidad o el ocio. Además, constituye una herramienta de cohesión social y de igualdad de oportunidades, asegurando que ni la condición económica, ni la disponibilidad de vehículo propio, ni el lugar de residencia limiten el derecho a disfrutar de las mismas oportunidades.

En el caso de la línea ferroviaria Brinkola–Irun, las obras en curso imprescindibles para la modernización de la línea y por ende para un servicio de más calidad, han derivado en una reducción de frecuencias, lo que ha supuesto evidentes inconvenientes para miles de usuarios y usuarias.

Mientras que esta obra se acomete, desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, se ha trabajado para dar una respuesta a esta problemática. Fruto de esta apuesta estratégica se creó la línea GO07 de Lurraldebus, que se ha consolidado como una alternativa real para mejorar los desplazamientos a Donostia desde el Goierri y Urola-Garaia.

Este paso, impulsado desde el Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa de acuerdo con los ayuntamientos de Beasain, Zumarraga y Legazpi, responde a una demanda histórica de la ciudadanía de la comarca: disponer de un servicio complementario y eficaz de transporte público que mitigue los efectos negativos de las limitaciones actuales en la red ferroviaria.

PROPUESTA DE ACUERDO

1. Trasladar al Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la importancia de la creación y consolidación de la línea GO07 como respuesta estratégica a una histórica demanda ciudadana de mejorar la conexión entre el Goierri y Donostia. Asimismo, destacar los servicios de refuerzo implantados con el objetivo de responder a los picos de demanda en horas punta.

2. Solicitar al Ayuntamiento de Beasain, en coordinación con el resto de los ayuntamientos de la comarca, mantener y reforzar la colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa en el impulso de alternativas de transporte público que den respuesta a las necesidades de la ciudadanía.

3. Instar al Gobierno Vasco a que traslade a Renfe y ADIF (operador del servicio de cercanías y propietario de la infraestructura, respectivamente) la necesidad de que, una vez finalicen las obras que afectan a la línea de cercanías, se restituyan cuanto antes las frecuencias previas, de manera que se recupere el papel central del tren en la movilidad sostenible de la comarca.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Gure mozioa trenaren funtzionamenduari buruzko da. Txalotzekoa da GO07 linea bultzatu izana herritarren beharrak asetzeko, baina ez dugu uste horrek kentzen duenik lehen genuen trena zerbitzua hobetzeko. Aurkako mozioak ematen du autobusa lehenetsi nahi duela eta gure iritziz hori ez da etorkizun garbiagoren adierazgarri.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros entendíamos la moción como una crítica a los inconvenientes que provocan las obras en la línea Irún-Brinkola y también interpretamos que en la exposición de motivos se critican las obras del TAV que el Gobierno Vasco está realizando y parece que todo ello sería la causa del caos en el que nos encontramos. Queríamos puntualizar cierta información, por ejemplo, a partir de la transferencia de la gestión de servicios de cercanías que sea efectiva en enero de 2025, es el Gobierno Vasco y el departamento de movilidad el responsable de la prestación de ese servicio, esto es, tarificación, inspecciones, etc., y lo hace con RENFE. El propietario de las vías, estaciones y apeaderos es ADIF y es quien hace las obras de mantenimiento. En 2017, la empresa adjudicataria quebró y ADIF tuvo que iniciar un nuevo proceso de contratación. Es la razón por la que las obras se han demorado y que han provocado la situación en la que nos encontramos. Somos plenamente conscientes de las molestias que se están generando en los últimos años y que las personas usuarias lo están padeciendo, pero es una obra necesaria, no sólo para posibilitar el paso del tren de alta velocidad, sino también para mejorar la red de cercanías y de media y alta distancia. Según vuestro punto de vista el Gobierno

Vasco y el departamento movilidad debería priorizar las interminables obras del TAV sobre el correcto funcionamiento del transporte público que usan a diario miles de personas. Creemos que este punto de vista pueda estar equivocado ya que el propietario de la infraestructura y quien está realizando estas mejoras, con una inversión importante en la red de cercanías guipuzcoana, además de la implantación de una nuevohilo por donde va a pasar el TAV, es ADIF. Nosotros esperamos que a la finalización de las obras se recupere la normalidad en el transporte del ferrocarril.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Abiadura handiko trenaren inguruan zein den gure jarrera ez dugu errepikatuko. Hori gauzatzeko egiten ari diren obrak dira arazoa sortzen ari direnak. Elkarrekin Podemos-ekin bat egiten dugu esaten duenean trena izan behar duela garraio nagusia. Egia da GO07 linea martxan jarri dela, indartu dela, nahiz eta oraindik nahikoa ez izan eta horrek erakusten du autobusa osagarria izan daitekeela, baina ez garraio nagusia. Gure ustetan herritarrek, beraien funtzionamendurako behar duena, tren-garraioa dela eta hor jarri behar direla indarrak, inbertsioak eta dirua. Beraz, guk Elkarrekin Podemos-ek aurkeztutako mozioaren alde gaude.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aipatu da gure aurkako mozioan GO07 linea indartu nahi dela. Nik ez dut horrela interpretatu. Gertatzen dena da, gaurko egoera ikusita, tren erabiltzaile batzuk autobus-era pasa direla. Ez da ohikoa Beasaindik Donostiako tren geltokira jendea autobusez ibiltzea. Ulertu dezaket Zuatzura doan beasaindarrak, goierritarrek autobusa hartzea, baina zentzura doazenentzat trena jasangarriagoa izanik, modu garraio egokiagoa da eta zuekin bat egiten dut. Gertatzen dena da obra hasi zirenetik, erabaki zela trenbidea mantentzea, eragozpen guztiekin, eta obrekin aurrera egitea. Urtean behin udara begira, deitzen digute bilera batera ezagutarazteko udaran trenak zein eragozpen izango dituen eta aipatu ziguten 2026an obrak amaituko direla eta erabaki zela tren-zerbitzua mantentzea (Alemanian, adibidez, erabaki zuten urte eta erdi bi urtetan trena zerbitzurik gabe uztea), nahiz eta eragozpenak izan. Ni baikorra izan nahi dut eta sinistu nahi dut, obrak amaitzen direnean tren-zerbitzu hobeagoa izango dugula eta maiztasun gehiagorekin eta pentsatu nahi dut orain autobusa erabiltzen duten batzuk trenera pasatuko direla. Bitarte horretan GO07ri tokatzen ari zaio, aurreko urteetako daturik izan gabe, momentuan dauden demanda-piko horiei erantzutea eta zerbitzu horiek indartzea. Batzuk egonkorrak dira eta gutxi asko errefortzua eskatzen dute. Esango nuke nahiko ondo erantzuten ari dela autobus-zerbitzua baina datu-faltak dakar, batzuetan norbait geratzen dela autobusa hartu ezinik. Baina gure ametsa, maiztasun handia duen tren-zerbitzu ona izatea da, Donostiarekin edo beste eskualde batzuekin konektatuko gaituena.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Autobusena oso ondo etorri den irtenbide puntuala izan da, trenaren funtzionamendua momentu honetan ona ez delako, eta baliteke obrak bukatzen direnean, zerbitzu on bat errekuaratzea, baina bitartean zerbitzu hori ematen duen enpresari erantzukizuna eskatzea egongo litzateke. Autobusera tiketa hartu eta gero tokirik ez dagoelako ezin baduzu erabili dirua itzultzen dizue, baina aldiritako tren bat ordu erdi berandago iristen bada, inork ez du inolako konpentsaziorik ematen. Gure mozioak egiten duen doakotasuna, zentzu horretan doa. Ziur nago doakotasun hori emango balitz jendeak autobusa gutxiago erabiliko lukeela eta jendeak asko hobeto hartuko lituzkeela atzerapenak.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Bi mozioetan aipatzen da (ez modu berdinean), eskualdeko koordinazio espazioak (adibidez, GOIEKI) egokiak izango lirakeela mugikortasuna aztertzeke eta ez bakarrik tokiko planotik. Eskualdeko gaia izan daiteke.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Tokiko planoan egiten ditugun eskuhartzeaz gain, eskualde mailan era baditugu beste hainbat erronka eta horretarako GOIEKIn baliabide ona izango da, GOIEKIk baduelako mugikortasun arloa lantzen duen esparru bat eta hainbat gain aztertu izan dira, adibidez bizikleta partekatua, baina orain arte ez dute ondo ikusi.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 6 (Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez aurkako mozioa gehiengo osoarekin onartu da eta horren ondorioz, ez da bozkatu Elkarrekin Podemos-ek aurkeztutako mozioa.

5.- BERRI EMATEA:

Ezagutzero eman dira, ondorengo ebazpenen zerrendak:

- 2025eko uztailaren 21etik irailaren 21era emandako Ebazpenak.
- 2025eko uztailaren 21etik irailaren 21era emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En la Junta de Portavoces preguntamos por un contrato menor y queríamos tener información sobre ello.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Itzulia antolatzeagatik izandako faktura izan zen eta kasu horretan kontratu txikia izapidetzea legearen barruan dago zeren eta beste inork ezin du zerbitzu hori eskaini (kontuhartzailearekin gaur goizean kontrastatu dut).

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Gaurko plenoan argi geratu da ROM bat ez izateak zalantza asko sortzen dituela hainbat izapide egiteko. Ez dakit ROM hori onartu bitartean irizpide batzuk onartzea zilegi den gauza batzuk garbi uzteko. Adibidez, guk ekainean mozioa astelehen arratsaldean sartu genuen eta esan zitzaigun goizean egin zela gai-zerrenda, berandu zela eta denbora gutxiarekin sartu zela. Aurkako mozio batek izaera hori edukitzeagatik, plenoa egin behar den egunen bertan sartzeak denborarik ez dagoenean aztertu eta adosteko, horrek balio du?. Ez diot inolako zentsurik ikusten.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Denak du bere irakurketa. Zilegi da astelehenean gai-zerrenda bidali baino lehen talde politiko batek mozio bat aurkeztea. Besteek ere, astelehenetik ostegunera bitarte aurkako mozioak egiteko aukera badutela, baina honek erpin asko ditu eta interpretazioak era anitzak izan daitezke. Gure kasuan ez dugu ROMik baina izango bagenu ere, segun eta zer gauza txertatu gabe egongo lirateke, teknologia legea baino aurrerako joaten delako. Aurreko legealdian hasi ginen araudi bat lantzen, lan-talde bat sortuz, baina horrelako funtzionamendu-araudiak atal asko jaso litzake eta atal horietan galdu ginen eta EUDELek zerbait sinplifikatua bidaliko zuelakoan, lanketa bertan utzi genuen, nahastuta geratu ginen.. EUDELetik ez da ezer jaso. Praktikoa izate aldera, hasi gintezke utzi genuen

puntutik eta hainbat xehetasun daudenez, lehentasuna eman diezaiekegu bertako hainbati arautuak izateko.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Ados. Denak badakigu ze dokumentu tamainaz ari garen. Gaurkoa rekurrente xamarra da eta denok atera gara galtzen edo irabazten. Hastapen bat izan daiteke puntu hau lotzen hastea, zeren eta, niri behintzat, justua ez zait iruditzen aurkeztu duenaren mozioa ez bozkatzea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Praktikotasunari begira hasi gaitezke gai honekin. Gaur gertatu diren inguruabar horiek egungo errealitatera egokitu behar dira. Araudirik ezean, horrelako egoerak sortzen dira.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hemeretziak eta hogeitun minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.